

Behar dudan familia.

ATZEGI BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR ATZEGI

T: 943 42 39 42

E: info@atzegibabesfundazioa.eus

www.atzegibabesfundazioa.eus



BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales

Zer da Atzegi Babes Fundazioa?

Babes Fundazioa,
adimen-urritasuna dugun pertsonen
familiarik ez dugunean
bizitzan laguntzen digun erakunde bat da.

Babes Fundazioak ez du dirurik irabazten.

Horregatik da “irabazi asmorik gabeko” erakundea.

Nori lagun diezaioke?

Babes Fundazioak zuri lagun diezazuke,
baldintza hauek guztiak betetzen badituzu:

- Adimen-urritasuna edo garapen-urritasuna baldin baduzu.
- Lagun diezazukeen senitartekorik ez baduzu.
- 18 urte baino gehiago baduzu.
- Gipuzkoan bizi bazara.
- Jarduteko gaitasuna aldatuta baduzu.

Axola diodan
norbait daukat.



BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Nola laguntzen die desgaitasuna duten pertsonei?

Babes Fundazioak gure bizitzaren alderdi guztietan laguntzen digu:

- Orientazioa ematen dizu, bizitza zuk nahi duzun bidetik joan dadin.
- Zure ongizateaz eta osasunean laguntzen dizu.
- Etxebizitza egokia bilatzen laguntzen dizu.
- Lana bilatzen laguntzen dizu.
- Gizartean parte hartzeko sostengua eta babesa ematen dizu.
- Zure eskubideak errespetatu daitezkeen arduratzen da.
- Zure eginbeharrak betetzen laguntzen dizu.
- Zure ondasunak administratzen laguntzen dizu.
- Pertsona autonomoagoa izateko laguntza ematen dizu.
- Erabakiak hartzen laguntzen dizu.

Nola laguntzen die familiei?

Familiek

Etorkizunerako Konpromisoa izeneko dokumentua sina dezakete.

Hartara, hildakoan,

Atzegi Babes Fundazioak babestu ahal izango du haien semea/alaba.

Behin betiko erabakia epaile batek hartuko du.

Nire etorkizunaz
arduratzen dira.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Gure historia

Desgaitasun intelektuala zuten pertsonen familiartekoak kezkatuta zeuden beren seme-alaben etorkizunarekin.

Familiartekorik ez zenean, nork lagunduko zien jakin nahi zuten.

1969

1969an, Atzegi elkarteak gurasoei laguntzeko nazioarteko biltzar bat antolatu zuen.

1977

1977an, Atzegi elkarteak Etorkizuna Prestatzeko programa osatu zuen.

Programa horren bitartez, desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren bizimodua antolatzen laguntzen zaiei familiei.

Eskuarki, tutorea familiako kideren bat izaten da.

Baina kasu batzuetan ezinezkoa gertatzen da.

Konfiantza dut
babesten nauten
pertsonengan.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

1983

1983an Atzegi elkarteak Babes Fundazioa sortu zuen, familia gabeko pertsona horietaz arduratzeko.

Espainiako lehenengo Babes Fundazioa izan zen.

1994tik

Aspacek eta Gautenak, beren erakundeetako pertsona garrantzitsuak Patronatu Batzordean sartuz, Fundazioan parte hartu zuten.

2002tik

Gipuzkoako Foru Aldundiak Atzegi Babes Fundazioari laguntza ekonomikoa ematen dio; bere erantzukizunetako bat dela uste baitu.

Fundazioak pertsona, enpresa eta udal batzuen laguntza ekonomikoa jasotzen du, gehien behar duten tutoretzapeko pertsoneri laguntzeko.

Egunerokotasunean
laguntzen naute.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Gure balioak

Atzegi Babes Fundazioaren balioek orientazioa ematen digute gure lana betetzeko.

Balio horiek modu egokian eta arduratsu jokatzeko laguntzeko.

Atzegi Babes Fundazioaren balio nagusiak hauek dira:

Babestutako pertsona da garrantzitsuena.

Babes Fundazioa zure premiak eta ametsak zein diren ezagutzen ahalegintzen da; eta horiek lortzeko sostengua ematen dizu.

Tutorea familiako norbait izatea da onena.

Sostengu emateko familiako kideren bat izan ezean, orduan Atzegi Babes Fundazioak lagunduko dizu.

Nire bizitza nik neronek
egin dezaket, eta
hori da nahi dudana.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Taldean lan egitea garrantzitsua da.

Atzegi Babes Fundazioak beste erakunde batzuekin elkarlanean lan egiten du.

Adibidez, etxebizitza edo lana topatzeko.

Elkarrizketa eta entzute aktiboa da,
lan egiteko herramintarik garrantzitsuena.

Horrek ematen digun
konfiantzan oinarritzen dira gure harremanak.

Nork lan egiten du gurekin?

Babestutako pertsona da garrantzitsuena Babes Fundazioarentzat.

Babes Fundazioko langile guztiak arlo eta gai ezberdinetan aritzen dira:

- Zuzendaritza eta kudeaketa arloa.
- Gizarte arloa.
- Arlo ekonomikoa.
- Arlo juridikoa.

Patronatua ere badago,
gai garrantzitsuen inguruko erabakiak hartzeko.

Patronatua 14 pertsonak osatzen dute eta hau da,
Fundazioaren zuzendaritza organorik gorena.

Gertukoa eta
konprometitua den
norbait daukat.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Boluntarioria

Boluntarioek babestutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dute.

Oso gertuko harremana dute haiekin.

Gainera, gizartean parte hartzen, gaitasunak garatzen eta ondo sentitzen laguntzen diete.

Boluntarioak oso garrantzitsuak dira Atzegi Babes Fundazioarentzat.

Tutoretzako boluntario izan nahi baduzu, dei iezaguzu 943 423 942 telefonora edo jarri kontaktuan info@atzegibabesfundazioa.eus helbide elektronikoaren bidez.

Animatu!

Boluntario ere
izan zaitezke,
informatu zaitez.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Laguntzeko beste moduak

Lagundu nahi baduzu baina zure denbora eskaintzeko tarterik ez baduzu, ekarpen ekonomiko bat ere egin dezakezu, diruz lagunduz.

Gurekin harremanetan jar zaitezke, komunikazio-kanal hauek erabiliz. Eskerrik asko, aldeaz aurretik, zure laguntzagatik.



Bidali mezu elektronikoa bat helbide honetara:
info@atzeigibabesfundazioa.eus



Telefonoz dei gaitzakezu
943 423 942



Bidaliezaguzu Bizum bat nahi duzun
ekarpen kopuruarekin
666 555 444

Gu arduratuko gara egindako ekarpena justifikatzeko ziurtagiria bidaltzeaz.

Lagundu gaitzazu
gure bizitza
ederragoa egiten.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Ohiko galderak

Zer da jarduteko gaitasuna?

Jarduteko gaitasuna nire eskubideak erabiltzen eta nire obligazioak betetzen jakitea da.

Adibidez, nire dirua kudeatzea, etxebizitza bat erostea edo lan-eskaintza bat egokia ote den jakitea.

Pertsona batzuek erabakiak hartzeko sostengua behar izaten dugu.

Sostengu horri jarduteko gaitasuna aldatzea esaten zaio, eta epaileak erabakitzen du.

Pertsona guztiok dugu jarduteko gaitasuna, 18 urte betetzen dugunetik.

Desgaitasun intelektuala duten pertsona batzuek ez dute sostengu horren premiarik izaten.

Nire ongizate
eta osasunaz
arduratzen dira.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Zer da jarduteko gaitasunaren aldaketa?

Jarduteko gaitasunaren aldaketa epaileak ezartzen duen sostengu eta laguntza bat da, eta bizitzarako garrantzitsuak diren erabaki batzuk hartzeko babesa eta laguntza eskaintzen du.

Epaileak bizitzeko zer sostengu behar dituzun balioztatzen du, eta nork lagundu behar dizun erabakitzen du.

Zer egin dezaket nire jarduteko gaitasuna aldatzearekin ados ez banago?

Epaileak zure gaitasuna aldatu aurretik, gutun bat bidaliko dizu etxera gaiari buruz informatzen.

Gutun hori jasotzean, zure desadostasunak azal ditzakezu, eta horien zergatia eman dezakezu.

Epaileak izango du azkeneko erabakia. Gutun horri erantzuteko abokatu baten laguntza behar duzu.

Nire zorientasunaz
gozatu dezaket.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Abokatu horri ordaintzeko dirurik izan ezean, ofiziozko abokatu bat eska dezakezu.

Ofiziozko abokatuek dirurik ez duten pertsonekin lan egiten dute, eta behar duzunean laguntzen dizute.

Zer egiten du epaileak ezarri duen arduradun edo erakundeak?

Babestu eta lagundu behar zaitu epaileak deliberatutako gaien inguruko erabakietan.

Tutoreak zure interesak babestu behar ditu, eta kontuan hartu zure nahiak eta premiak; eta autonomia izaten lagundu behar dizu, eta ondo bizitzen.

Tutoreak ahalegindu behar du gero eta erabaki gehiago zure kabuz har ditzazun.

Autonomoago izaten laguntzen naute.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Nor izango da nire ondasunen jabe?

Ondasunak zureak bakarrik izango dira,
eta ez dira inoiz izango
laguntzen edo babesten zaituenarenak.

Ondasunak egoki administratzen babestuko dizu.

Nork kontrolatzen du nire tutorea?

Epaileak gainbegiratzen eta zaintzen du
babesten edo laguntzen zaituen arduraduna,
hartzen dituen erabakiak zuretzat onak direla ziurtatzeko.

Fundazioak hurrengo betebeharrak ditu:

Urtean behin, epaileari zer laguntzak eman dizkizun
eta zer egoeran zauden jakinaraztea.

Epaileak zure arduradunaren erabakiak
lagungarri gertatu direla egiaztatzen du.

Epaileari berri ematea, gairik garrantzitsuenen inguruan,
adibidez, etxebizitza saldu nahi duzula.

Asko laguntzen didate
egin nahi ditudan
gauzetan.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Fundazioak betiko babestuko al zaitu?

Ez du zergatik betiko izan behar.

Arduradunez aldatu nahi izanez gero,
arrazoiak epaileari azaldu beharko dizkiozu.

Epaileak hartuko du
zure tutorea aldatzearen inguruko erabakia.

Izango al dut nire dirua erabiltzeko aukerarik?

Bai, baina batzuetan Fundazioaren laguntza beharko duzu
zure dirua administratzeko.

Gainera, Fundazioak zure dirua kudeatzen irakatsiko dizu,
gero eta autonomia handiagoa izan dezazun.

Independenteago
eta babestuago
sentitzen naiz.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

Babesten edo laguntzen zaituenak hartuko al du nire dirua?

Ez.

Dirua zurea da, eta zure bizi-proiekturako behar duzu.

Zu zenduz gero, dirua zure testamentuan jartzen duen pertsonari emango diote.

Nire tutorea Atzegi Babes Fundazioa izanez gero, harremana galdu egingo dut nire familiarekin?

Ez duzu harremanik galduko zure familiarekin.

Atzegi Babes Fundazioak zure familiarekin harremana izaten lagunduko dizu, betiere zuk hori nahi baduzu, eta zuretzako onuragarri bada.

**Konfiantza eta
lasaitasun osoa
daukat.**



ATZEGI

**BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR**

Bisita gaitzazu www.atzegibabesfundazioa.eus

Behar duzun informazio guztia eskura dezakezu gure web orrian, www.atzegibabesfundazioa.eus-en, fundazioaren berri, kanpaina eta bideo guztien berri izango duzu bertan.

Zure zain gaude.



Informatu zaitez
gure webgunean.



ATZEGI

BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

ERAKUNDE LAGUNTZAILE NAGUSIAK:



Fundación Goyeneche
de San Sebastián

Donostiako
Goyeneche Fundazioa



GAUTENA

Beste erakunde laguntzaileak:
Gipuzkoako toki-administrazioak, Gureak, Espainiako Babes Fundazioen elkarte (AEFT)
Euskadiko Plena Inclusión elkarte.

